



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**LURPEKO EDUKIONTZIEN MANTENTZE LAN PREBENTIBO ETA  
GARBIKETA ZERBITZUA EMATEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA  
BEREZIEN PLEGUA**



## AURKIBIDEA

### **I. Kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK**

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA
3. LIZITAZIOAREN PREZIOA
4. FINANTZAKETA
5. PREZIOAK BERRIKUSTEA
6. ORDAINTZEKO ERA
7. BEHIN BETIKO BERMEA
8. KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

### **II. Kapitulua.- KONTRATAZIOA**

9. ESLEITZEKO PROZEDURA
10. LIZITATZAILEAK
11. PROPOSAMENAK: DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK
12. PROPOSAMENAK AURKEZTEA
13. DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA
14. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK
15. ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA
16. KONTRATUA FORMALIZATZEA

### **III. Kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA**

17. KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK
18. DATU PERTSONALAK
19. SEGURTASUNA ETA OSASUNA
20. EKIPO ETA BITARTEKO PERTSONALAK
21. BITARTEKO TEKNIKOAK
22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN  
HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK
23. BAIMENAK
24. LANEN KONTROLA
25. BERMEA JASOTZEA ETA EPEA
26. KONTRATUA BERTA BEHERA UZTEKO ARRAZIOIAK
27. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK
28. KONTRATAZIO MAHAIA

### **I. ERANSKINA: PROPOSAMENAREN EREDUA**

### **II. ERANSKINA: ADIERAZPENAREN EREDUA**



## I. Kapituluua.- XEDAPEN OROKORRAK

### 1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea izango da lurpeko edukiontziak prest jartzeko, mantentze lan prebentiboa egiteko eta garbitzeko zerbitzua ematea, Plegu honetan, Baldintza Teknikoen Pleguan eta kontratuaren esleipena bereganatzen duen eskaintzan ezarritakoaren arabera; egin beharreko lanaren zati bat aurretiaz zehazten da eta bestea ez, eta, ondorioz, kasu horretan, horren kuantifikazioa Mankomunitateak kontratistari kontratuak irauten duen bitartean adierazten dizkion beharren menpe geratuko da.

Esleipenaren ondorioetarako, zerbitzua bi lotetan banatzen da, ondoren zehazten den bezala, eta eskaintza lote baterako, hainbatetarako edo guztietarako aurkeztu daiteke:

- 1. lotea: Arrasateko lurpeko edukiontziak prest jartzea.
- 2. lotea: lurpeko edukiontziak barrutik eta kanpotik garbitzea, eta mantentze lan prebentiborako aldizkako lanak.

CPV kodea: 50500000-0

### 2. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Kontratu honek urte bat iraungo du, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, eta elkarrekin adostuta luzatu ahal izango da, gehienez ere urte batez.

1. loteko lanak, hau da, Arrasateko lurpeko edukiontziak prest jartzekoak, sei asteko epean egin beharko dira, Mankomunitateak lanak hasteko agindua jakinarazten duenetik kontaktzen hasita.

2. loteko lanak, hau da, edukiontziak garbitzeko eta mantentze lan prebentiboa egitekoak, gehienez ere 15 eguneko epean hasiko dira, Mankomunitateak lanak hasteko agindua jakinarazten duenetik kontaktzen hasita, eta horrez gain Mankomunitateak urteko egutegi orientagarri bat eman dezake aipatu lanak egiteko.

### 3. LIZITAZIOAREN PREZIOA

Kontratu honen modalitatearen arabera, ez da bere zenbateko osoa zehazten, eta atal honetan arau hauek ezartzen dira:

- **1. lotea:** hasieran kuantifikatutako lanen lizitazioaren prezio totala, hau da, Arrasateko lurpeko edukiontziak prest jartzeko 1. lotearen lanena, 49.000 € da, BEZa kanpo.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- **2. lotea:** ez da honen lizitazioaren prezio totala zehazten, bera integratzen duten zerbitzu unitateena baizik, eta horietako bakoitzarena, BEZa kanpo, ondoren zehazten dena da. Kasu honetan, kontratuaren balio aurreikusia 90.000 € da, BEZa kanpo.

Unitate bakoitzaren lizitazio prezioa honako hau izango da:

- Lurpeko edukiontziak barrutik eta kanpotik garbitzeko lanak: 95 € garbitutako unitate bakoitzeko, BEZa kanpo.
- Mantentze lan prebentiboa egiteko aldizkako lanak: 155 € aztertutako unitate bakoitzeko, BEZa kanpo.

Aurkezten diren eskaintza ekonomikoak ezingo dira zenbateko horiek baino handiagoak izan. Edonola ere, lizitatuzaileek aipatutako prezioak hobetu ahal izango dituzte.

Aurkeztutako proposamenetan BEZaren zenbatekoa ere adieraziko da, kontratuaren prezioaz gain, baita horren ondorioz sortzen diren zerga eta gastu guztiena ere.

### **4. FINANTZAKETA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa bat aurreikusita dago unearen urteko aurrekontuaren kontu. Halaber, aurrekontuen gaitan eskumena duen organoak datozen ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak erreserbatuko ditu, dagokionean.

### **5. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honetan ez da prezioen inolako berrikuspenik aplikatuko.

### **6. ORDAINTZEKO ERA**

Kontratuaren prezioa fakturak aurkeztu eta onartu eta gero ordainduko da, dagozkion lanak egin eta gero.

Fakturak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 216. artikuluan xedatutako epeen barruan ordainduko dira.

### **7. BEHIN BETIKO BERMEA**

Ekonomikoki onuragarrienak diren eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatuzaileek behin betiko berme bat eratzeko betebeharra izango dute, kontratazio organoaren eskura. Horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren %5en parekoa izango da, BEZa kanpo, 1. loteari dagokionez, eta 2. loterako aurreikusi den balioaren %5en parekoa.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Aipatutako berme hori eratzeko epea hamar egun balioduneko izango da errekerimendua jaso den hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96. artikuluan ezarriko bitartekoetatik edozeinetan eratu ahal izango da.

Bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, bermearen epea amaitu eta gero eta esleipendunak kontratuko bere betebeharrak guztiak bete eta gero.

### **8. KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENDUNA**

Kontratuak zerbitzuen kontratu administratiboaren izaera izango du. Kontratua Administrazio Klausula Berezien Plegu honen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koaren, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen 817/2009 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koaren, eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorretik indargabetu gabeko xedapenen arabera arautuko da. Osagarri moduan, Zuzenbide Administratiboko arau orokorrak ezarriko dira eta, horrelakorik ez dagoenean bakarrik, Zuzenbide Pribatukoak.

Kontratua aplikatzeko edo interpretatzeko, gauzatzeko, aldatzeko, betetzeko edo bertan behera uzteko gerta daitezkeen auzi gaiak Mankomunitateko organo eskumendunek ebaztuko dituzte, eta horren erabakiak betearazleak izango dira berehala.

Erabaki horiek inpugnatzeko eskumena duen jurisdikzioa administrazioarekiko auziena izango da.

## **II. Kapituluak.- KONTRATAZIOA**

### **9. ESLEITZEKO PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena PROZEDURA IREKIZ egingo da.

### **10. LIZITATZAILEAK**

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona naturalek edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, jarduteko erabateko ahalmena badute, ez badaude kontratatzeke debekutan sartuta, eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioak eta teknikoak edo profesionala badute.



## 11. PROPOSAMENAK: DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

1. Lizitatzaille bakoitzak proposamen bat baino ezingo du aurkeztu. Elkartutako enpresek ezingo dute proposamenak beraiek bakarrik aurkeztu eta, horrela eginez gero, ez dira ez bereak ez elkarketarenak onartuko.
2. Proposamenak hiru gutun azaletan aurkeztuko dira, eta horietan ondoren zehazten diren dokumentuak egongo dira:

### 1. GUTUN AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

1.- 1. gutun azalean sartuko dira:

#### **a) Enpresariaren nortasun juridikoa eta, dagokionean, bere ordezkartzarena egiaztatze dokumentuak.**

Nortasuna honela egiaztatuko da:

- Enpresaria pertsona juridikoa bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuz, zeinean agertzen diren bere jardura arautzen duten arauak, behar bezala inskribatuta, dagokionean, dagokion Erregistro Publikoan, zein pertsona juridikoko mota den.

Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoen enpresari ez espainiarrak direnean, kokatuta dauden Estatu legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikagarri zaizkien Europar Erkidegoko xedapenen arabera zinpeko aitorpena edo egiaztagiria aurkeztu.

Atzerriko beste enpresariak, berriz, jarduteko ahalmena dutela egiaztatze dagokien Estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo enpresak egoitza dueneko lurralde eremuko Bulego Kontsularrarena aurkeztuko dute.

- Lizitatzailleak bere izenean jarduten badu, Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko du, edo dagokion estatuko baliokidea.

- Beste baten izenean agertu edo proposamenak izenpetzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionala edo horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da.

#### **b) Kontratatzeko debekutan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitorpena. Aitorpen horretan sartuko dira indarrean dauden xedapenek agindutako zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituelako adierazpena.**

Esleipena egokitu zaion enpresariak zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituelako ziurtagiria esleipena gauzatu baino lehen aurkeztu beharko ditu.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

### c) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko dokumentuak.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko justifikazioa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 75. artikulua arabera egingo da, agiri hauek aurkeztuz:

- Arrisku profesionalengatik kalte-ordainetarako 300.000 €-ko edo zenbateko handiagoko aseguru bat badagoela justifikatzen duen agiria.

### d) Kaudimen teknikoa eta profesionala egiaztatzeko dokumentuak.

Kaudimen teknikoa eta profesionala egiaztatzeko justifikazioa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 78. artikulua arabera egingo da, agiri hauek aurkeztuz:

- Azken hiru urteetan kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriekin egindako zerbitzu nagusien zerrenda, zeinean sartuko diren horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoak edo pribatuak. Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskumendunak emandako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, edo, hartzailea subjektu pribatu bat bada, horrek emandako ziurtagiriaren bitartez, edo, ziurtagiririk egon ezean, enpresariaren aitorten baten bitartez.

**Azken hiru urteetan edukiontzia garbitzeko eta mantentzeko lanak egin izana egiaztatzen ez duten enpresen eskaintzak baztertu egingo dira.**

**e) Atzerriko enpresentzat, maila guztietako Epaitegi eta Auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpe jartzeko deklarazioa,** kontratutik zuzenean edo zeharka ondoriozta daitezkeen gertakizun guztietarako, eta, dagokionean, lizitatzailari egoki dakioken atzerriko jurisdikzio foruari uko eginda.

### f) Dagokionean, jakinarazpenak egiteko posta elektronikoko helbidea.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro ofizialaren jarduerari buruzko arauak finkatzen dituen 12/1998 Dekretuan, otsailaren 3koan, araututako Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzailaiek, a) eta b) ataletan eskatutako agirien orde, dagokion Erregistroko organo arduradunak emandako eta indarrean dagoen ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute, eta horrekin batera lizitatzailaren erantzukizuneko aitortpena, zeinean adieraziko duen dagokion ziurtagirian adierazitako egoerak ez direla aldatu.

**Agiri horiek denak originalak izango dira edo, bestela, behar bezala konpultsatuta egon beharko dira.**

**A GUTUN AZALEKO dokumentazio hau hasieran aurkeztu orde lizitatzailaiek erantzukizuneko aitortpena aurkeztu dezake, II. Eranskineko ereduaren arabera. adieraziz proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean Administrazioarekin kontratu bat izenpetzeko lege ezartzen diren baldintzak betetzen dituela.**



**Kasu horretan, lizitzaileak, esleipen proposamena berari egokitzuz gero, kontratua eskuratu aurretik kontratazio organoaren aurrean egiaztatu beharko du eskatzen diren dokumentuak badituela eta baliiodunak direla.**

## **2. GUTUN AZALA: BALIO IRIZPEN BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO IRIZPIDEAK**

Lizitzaileek Proposamen Tekniko bat aurkeztu beharko dute, gutxienez xehetasun hau izango duena:

### **1. Ioterako**

- Unitateen eta egin beharreko lanen gaur egungo egoeraren balorazioa, ahalik eta zehatzena.
- Lanak egiteko proposatutako metodologia, eta detektatutako gabeziak konpontzeko proposamen zehatzak.
- Ordeztu beharreko piezak edo elementuak, edo berriak edo erabiliak izango diren.
- Lanak egiteko proposatzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak.

Proposamen teknikoan proposatzen diren eragiketa guztiak zehaztu eta definitu beharko dira.

Hori guztia baloratu egingo da. Halere, gogorarazten da edonola ere Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako baldintzak bete behar direla.

### **2. Ioterako**

- Garbiketa lanak: lizitzaileek beren eskaintzetan zehatz-mehatz adieraziko dute garbitzeko duten metodologia, proposatutako bitartekoak eta produktuak, eta garbiketaren prezioaren barruan eskaintzen diren eragiketa guztiak zehatz adieraziko dituzte.
- Mantentze lan prebentiboak:
  - Mantentze lan prebentiboak egiteko proposatutako metodologia eta bitartekoak.
  - Lizitzaileek beren proposamenetan mantentze lanen txostenaren eredia aurkeztuko dute, aplikatu beharreko "check-list"-arekin.
  - Lizitzaileek, esleipenaren prezioaren barruan, zehaztu egingo dute beren eskaintza teknikoan zein elementu ordezkatu duten sistematikoki eta aurrez ezarritako maiztasunarekin (zein egoeratan dauden gorabehera), kasu bakoitzean maiztasuna adierazita: olio hidraulikoa, gomazko junturak edo beste batzuk.





## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- LIZITATZAILEEK ARGI ETA GARBI DESKRIBATU BEHARKO DUTE MANTENTZE LAN PREBENTIBO MODUAN ESKAINTZEN DIREN ORDEZKAPEN, KONPONKETA ETA DOIKETA LANEN NORAINOKOA, eta zehatz adierazi beharko dute mantentze lan prebentiboaren prezioaren barruan eskaintzen diren lanak, konponketak, doiketak, pieza ordezkapenak edo bestelako edozein, baita prezio horren barruan eskaintzen ez diren lanak edo piezak ere.

Proposamen teknikoan proposatzen diren eragiketa guztiak zehaztu eta definitu beharko dira.

### 3. GUTUN AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Proposamen ekonomikoa Plegu honetako I. ERANSKIN moduan agertzen den eredia beteko du zehazki, eta bertan lizitatzailleak eskaintako prezioa sartuko da.

Ulertuko da agiri honetan sartuko direla zehaztutako prezioetan kontratazioan eta lanak egitean sortu diren edo sortuko diren gastu guztiak eta, zehazki, honako hauek:

- Kontratuaren lizitazio eta formalizazio gastuak, dagokionean.
- Esleipendunak kontratatutako prestazioa emateko egin behar dituen gastuak, horien barruan gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruetoakoak, tasak, fidantzak, saiakuntzak, desplazamenduak, bere kargurako langileen ordainsariak eta dietak eta Plegu honetan aurreikusitako gainerakoak.
- Zerga mota guztiak, BEZa barne, eta kontratua indarrean dagoen bitartean ezarri edo alda daitekeen beste edozein.

Kontzeptu horietako bat ere ezingo da ondoren jasoarazi kontzeptu edo partida independente moduan.

### 12. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1. Aipatu diren gutun azalak Debagoieneko Mankomunitatearen Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko dira, Nafarroa etorbidea, 17, Arrasate-Mondragonen, 15 egun naturaleko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Lizitatzailleak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Correosko bulegoan bidalketa egin deneko data justifikatu beharko du, eta egun berean Kontratazio Organoari eskaintza telex, telefax edo telegrama bidez bidali dela jakinarazi beharko dio. Bi baldintza horiek betetzen ez badira eta bidalketaren jakinarazpena proposamenak jasotzeko ezarritako epetik kanpo jasotzen bada, eskaintza ez da onartuko. Dena dela ere, adierazitako



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

data igaro eta hurrengo hamar egun naturaleko epea igaro bada proposamena jaso gabe, proposamen hori ez da inola ere onartuko.

2. Gutun azalak itxita eta behar bezala sinatuta aurkeztuko dira, eta bertan enpresa lizitatzaillearen edo lizitatzaillearen izena eta idazkun hau agertuko dira: **“Lurpeko edukiontziak garbitzeko eta mantentze lanen zerbitzua emateko proposamena, lotea: ...”**.

Gainera, gutun azal bakoitzean barruan dagoen edukia edukia adieraziko da, jarraibide hauekin:

- 1. GUTUN AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA**
- 2. GUTUN AZALA: BALIO IRIZPEN BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 3. GUTUN AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

### **13. DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak denbora eta forma barruan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du (1. gutun azala), eta horretarako Administrazio Publikoen Kontratuen Erregelamendu Orokorraren 81. artikuluan adierazten den bezala jardungo da.

Horretarako, lizitatzaillearen ahalmenari eta kaudimenari buruzko azalpenak edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira, eta aurkeztean Erregelamenduaren 22. artikulua xedatzen duenaren arabera egingo da, bost egun naturaleko epean. Azalpen edo informazio osagarria eskatzeko, Mahaiak ahoz jakinaraziko die interesdunei, eta, era berean, Mankomunitatearen iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean iragarriko dira. Modu berean, aurkeztutako dokumentazioan konpondu daitezkeen akatsak egonez gero, Mahaiak lizitatzaille interesdunei jakinaraziko die, lizitatzailleek hiru egun baliodunetan antzemandako akatsak zuzendu ditzaten.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, kasuan kasu, antzemandako akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Kontratazio Mahaiak Plegu honetan ezarritako aukeraketa irizpideekin bat datozen enpresak zehaztuko ditu, eta lizitaziorako onartutakoak jakinaraziko ditu berariaz, baita baztertutakoak ere, zergatik baztertu diren adierazita.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo bosgarren egun balioduneko hamarretan, eta hurrengo astelehenean, esandako eguna larunbata bada, eta lizitatzaileraren batek bere proposamena posta bidez igorri ez badu behintzat, orduan gutun azalak Administrazio Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 80. artikulua aipatzen duen epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean irekiko baitira, 2. gutun azala irekitzeko jendaurreko ekintza egingo da, eta Kontratazio Mahaiari emango zaio bertan dagoen dokumentazioa baloratzeko. Irekiera jendaurreko ekintzan egingo da, Debagoieneko Mankomunitatearen areto batean.



## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

3. gutun azala (proposamen ekonomikoa) jendaurreko ekintzan irekiko da, Mankomunitate honen kontratatzailearen profilean ([www.debagoiena.com](http://www.debagoiena.com)) eta onartutako enpresa lizitatzaillei bidaliko zaien jakinarazpenean adierazten den lekuan eta egun eta orduan. Ekintza horretan balio irizpen baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da.

### 14. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1. Kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko zaio.
2. Kontratua esleitzeko kontuan hartuko beharreko irizpideak eta horien haztapena honako hauek dira:
  1. Proposamen ekonomikoa: %50.
  2. Proposamen teknikoa: %50.

<p><b>1.- Proposamen ekonomikoa</b></p> <p>Balorazioa egiteko mekanika hau erabiliko da:</p> <p>Onartutako Proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua egiteko, interpolazio lineala erabiliko da, P1 puntuko (Gehieneko baxuena, Gehienezko puntuazioa) eta P2 puntuko (Zero baxua, Gutxieneko puntuazioa) bi puntuekin definitutako zuzenaren arabera, eta puntu horiek mugatzen duten zuzen horren segmentuaren arabera.</p> <p>Aipatutako puntu horiek hauek dira:</p> <p>P1 – Eskaintza merkeenari dagokiona (Gehienezko baxuena), zeinari Pmax puntuko puntuazioa emango zaion, gehienezko puntuazioa.</p> <p>P2 – Esleipen Motari dagokiona, zeinari gutxieneko puntuazioa emango zaion, honako formula honen arabera:</p> <p style="text-align: center;">Gutxieneko puntuazioa, Esleipen Motari dagokiona:</p> $P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max} \times 3)$ <p style="text-align: center;">Non, <math>B_{max}</math> = Gehienezko baxuena den</p> <p>Baxutzat (B) ulertzen da lizitazio motaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazio motarekin zatituta.</p>	<b>50 puntu</b>
--	-----------------



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

<p><math>P_{min}</math> kalkulua negatiboa balitz, <math>P_{min} = 0</math> dela joko da.</p> <p>Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako oinarritzko eskaintzak baino ez dira kontuan hartuko.</p> <p>Berez, edozein proposamen neurrigabetzat edo arinkieriazat jo ahal izango da, baldin eta bere portzentajea gutxienez onartutako oinarritzko proposamen guztien portzentajeen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate baino gehiago bada, eta hori deklaratzeko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da, bertan sartzen diren lizitatzailer guztiei aurretiaz informazioa eskatu eta gero, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza jaso eta gero.</p> <p><b>1. lotea</b> Goian deskribatutako formula ezarriko da, 1. Lotean eskainitako prezioekin.</p> <p><b>2. lotea</b> Goian 2. lotean eskainitako prezioekin deskribatutako formula ezarriko da. Eskainitako prezioa Lurpeko edukiontzia barrutik eta kanpotik garbitzeko lanen prezioaren eta Mantentze lan prebentiboak aldizka egiteko lanen batura izango da.</p>	
<p><b>2.- Proposamen teknikoak</b></p> <p><b>1. lotea</b> Alderdi hauek baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Unitateen eta egin beharreko lanen gaur egungo egoeraren balorazioa, baita balorazio horren zehaztapen maila ere: 10 puntu.</li><li>- Lanak egiteko proposatutako metodologia, eta detektatutako gabeziak konpontzeko proposamen zehatzak, baita horren zehaztapen maila ere: 15 puntu.</li><li>- Ordeztu beharreko piezak edo elementuak, edo berriak edo erabiliak izango diren: 15 puntu.</li><li>- Lanak egiteko proposatzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak: 10 puntu.</li></ul>	<p style="text-align: center;"><b>50 puntu</b></p>



Oro har, puntuazioan proposamen teknikoaren orokortasunak edo definizio eta zehaztaperen falta zigortuko dira.

## 2. Iotea

- Garbiketa lanak (10 puntu): garbitzeko metodologia, proposatzen diren bitartekoak eta produktuak eta garbiketa lanetan eskaintzen diren eragiketa guztien zehaztaperen maila baloratuko dira.
- Mantentze lan prebentiboak (40 puntu): alderdi hauek baloratuko dira:
  - Mantentze lan prebentiboa egiteko proposatutako metodologia eta bitartekoak, baita lan horietan eskaintzen diren eragiketa guztien zehaztaperen maila ere. Proposatutako mantentze lanen txostenaren eredu, aplikatu beharreko "check-list"-arekin, baita eredu horren zehaztaperen eta definizio maila ere: 10 puntu.
  - Esleipenaren prezioaren barruan aurretiaz ezarritako maiztasunarekin aldatzea proposatzen diren elementuak, duten egoera gorabehera, eta proposatutako maiztasuna: 5 puntu.
  - Mantentze lan prebentiboaren barruan ordeztu, konpondu edo doitzeko lanen irismena, baita irismen hori definitzeko argitasun maila ere, hau da, zein mailatan geratzen den zalantzarik gabe definituta mantentze lan prebentiboaren prezioaren barruan zein eragiketa egingo diren piezak konpondu, doitu edo ordezteko edo bestelako lanak egiteko eta zein lan edo pieza ez diren prezio horren barruan sartzen. Zehaztasunik eza, orokortasuna edo anbiguitasuna zigortu egingo da puntuazioan,



#### DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

hain zuzen ere ahalik eta argien zehaztu nahi delako esleitutako prezioaren barruan enpresak zein lan sartzeko edo ez sartzeko konpromisoa hartzen duen: 25 puntu.

Oro har, puntuazioan proposamen teknikoaren orokortasunak edo definizio eta zehaztapen falta zigortuko dira.

### 15. ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio organoa, Kontratazio Mahaiak proposatuta, aurkeztu eta neurrigabe edo anormaltzat deklaratu ez diren sailkapenak sailkatuko ditu, beheranzko hurrenkeran, Plegu honetan esleipenerako adierazitako irizpideei jarraituz.

Kontratazio organoak eskaintza ekonomikorik onuragarriena aurkeztu duen lizitatuileari eskatuko dio bere zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela justifikatzeko agiriak aurkeztu ditzan, hamar egun baliodunen epearen barruan, kontratua gauzatzeko dedikatu edo jartzeko konprometitutako bitartekoak egiazki dituelako egiaztagiriak, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak eta behin betiko bermea eratu duela justifikatzeko dokumentazioa.

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleitu du kontratua.

### 16. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Mankomunitateko organo eskumendunak esleipena egin eta gero, eta hori jakinarazi eta gero, esleipendunak dokumentu administratiboan formalizatu beharko du kontratua, gehienez ere hamabost egun balioduneko epearen barruan, behin betiko esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eta dokumentu hori edozein erregistro publikotan sartzeko behar besteko titulua izango da. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Kontratistari egotz dakizkiokeen kausengatik kontratua ez bada adierazitako epean formalizatu, Mankomunitateak hori bertan behera uztea erabaki ahal izango du, eta behin betiko bermea konfiskatzea.

Kontratua formalizatzeko ekintzan bertan, horren sinadurarekin batera, esleipendunak Administrazio Baldintza Berezien Plegua eta Baldintza Teknikoena izenpetuko ditu, horrekin jakitun dela adieraziz eta onartzen duelako frogua moduan. Kontratua formalizatzea edozein ordainketa tramitatzeko ezinbesteko baldintza izango da.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **III. Kapituluak.- KONTRATUA GAUZATZEA**

#### **17. KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK**

Kontratu hau kontratistaren gain eta galorde gauzatuko da.

Lanak onartutako Pleguak, arau aplikagarriak eta kontratatutako zereginen izaeraren berezko arau teknikoak zorrotz betez gauzatu beharko dira.

Esleipenduna garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea izango da, baita Administrazioarekiko edo hirugarrenekiko sortzen diren ondorioen erantzulea ere, kontratua gauzatzean omisioak, akatsak, metodo desegokiak edo amaiera okerrak gertatzen badira. Kontratistak berari egotz dakizkioken ekintzengatik hirugarrenei eragiten dizkien kalteen kalte-ordaina emango du.

Kontratistak Lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloetan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.

#### **18. DATU PERTSONALAK**

Kontratua betetzeko datu pertsonalak automatikoki tratatzea beharrezkoa bada, enpresa esleipendunak datuak Datu Pertsonalak Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan, abenduaren 13koan, xedatutakoa zorrotz betez erabiliko ditu.

Enpresa esleipendunak, kontratua dela-eta lortzen dituen datu pertsonal automatizatuak Mankomunitatearen jarraibideen arabera tratatuko ditu, eta ez ditu aplikatuko ez erabiliko bertan agertzen den xedea ez den beste baterako, eta ez dizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, ezta kontserbatzeko ere.

Kontratuaren prestazioa amaitu eta gero, tratatutako datu pertsonalak Mankomunitateari eman beharko zaizkio, baita tratatu beharreko datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumentu ere.

Enpresa esleipendunak datuak kontratuaren baldintzak urratuz beste xede batera bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu, orduan ere tratamenduaren erantzuletzat hartuko da, eta pertsonalki egin izan ditzakeen arau hausteez erantzungo du.

#### **19. SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Kontratistak, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematearen arloan segurtasunaren eta osasunaren erantzulea den heinean, arau juridiko eta tekniko aplikagarriak beteko ditu.

Debagoieneko Mankomunitateak beretzat gordetzen du kontratua indarrean dagoen bitartean prebentzioaren arloan egokitzen jotzen duen dokumentazioa eskatzeko eskubidea.



## **20. EKIPO ETA BITARTEKO PERTSONALAK**

Kontratastak lanak egoki egiteko behar diren ekipamendu eta bitarteko pertsonalekin gauzatu beharko ditu lanak.

## **21. BITARTEKO TEKNIKOAK**

Kontratastak lanak egoki gauzatzeko behar diren bitarteko teknikoak jarriko ditu.

## **22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK**

Kontratasta kontratua gauzatzeko behar diren operazioetan gertatzen diren kalte eta galeren erantzulea izango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214 artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **23. BAIMENAK**

Kontratastaren kontura joango da eta bere ardura izango da lanak egoki gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea, eta bere gain hartu beharko ditu erakunde eskumendunek ematen dituzten baldintzak eta aginduak. Baimen edo lizentzia horiek lortzeko tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk exijitzen badira, horien ordainketa edo gordailua ere kontratastaren gain egingo da.

## **24. LANEN KONTROLA**

Lanak Debagoieneko Mankomunitatearen kontrolaren pean egingo dira. Mankomunitateak jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratastari, betiere ez badute kontratatutako prestazioetan aldaketarik eragiten.

## **25. BERMEA JASOTZEA ETA EPEA**

Kontratuaren xedea den prestazioa amaitu eta hilabete bateko epean gehienez, kontratuaren harrera egiteko ekintza formala eta positiboa egingo da.

Halaber, LAU HILABETEKO epea ezartzen da, harrera formalaren datatik kontatzen hasita, berme moduan ezarrita, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Bermearen epe horretan zehar, kontratasta egindako lanetan edo prestazioetan ager daitezkeen akats edo bizioen erantzulea izango da.

Epe hori igaro eta Mankomunitateak eragozpenik jarri ez badu, kontratastaren erantzukizuna deuseztatuta geratuko da.





## **26. KONTRATUA BERTA BEHERA UZTEKO ARRAZOTIAK**

Kontratu hau bertan behera uzteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223 eta 308 artikuluetan xedatutakoak dira.

## **27. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Mankomunitateari eskumen hauek dagozkie: kontratua interpretatzea, betetzeko sortu daitezkeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, bertan behera uztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean ezarritako mugen barruan eta horien baldintza eta ondorioekin.

Horren inguruan emandako erabakiek amaiera jarriko diote bide administratiboari eta berehala betearazleak izango dira.

## **28. KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio Mahaia honela osatuta egongo da:

### Lehendakaria:

- Inazio Azkarragaurizar Larrea, Mankomunitateko lehendakaria

### Mahaikideak:

- Leire Egaña Arregi, Ingurumen Batzordeko lehendakaria
- Mikel Jaio Eiguren, Ingurumen Zerbitzuko arduraduna
- Ander Elortondo Bergaretxe, Mankomunitateko kontu hartzailea
- Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko idazkaria

Idazkaria: Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko idazkaria



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

## I. ERANSKINA

### PROPOSAMENAREN EREDUA

..... jaunak/andreak, adinez nagusiak,  
helbidea ..... eta NAN zk.  
....., ..... (r)en  
izenean eta hori ordezkatzuz, sozietatearen izena  
..... eta IFK zk .....

### A Z A L T Z E N D U

Lehenengoa.- Lurpeko Edukiontzien Mantentze Lan Prebentibo eta Garbiketa Zerbitzua Emateko Administrazio Baldintza Berezien eta Baldintza Teknikoen Pleguak ezagutzen ditu.

Bigarrena.- Bera erantzukizunpean adierazten du enpresa lizitatuzailea ez dagoela indarrean dagoen legediak Administrazioarekin kontratatzea debekatzeko ezartzen dituen inolako kasutan sartuta, aipatu lanak egiteko behar besteko ahalmen juridikoa eta bitartekoak dituela eta kontratu honetarako exijitzen diren baldintza bereziak betetzen dituela.

Hirugarrena.- Esleipendun gertatuz gero, lanak onartutako Pleguetako betekizun eta baldintzak zorrotz betez egingo ditu.

Laugarrena.- Kontratu honen xede diren lanak prezio hauen arabera egiteko konpromisoa hartzen du:

- **1. Iotea:** Arrasateko lurpeko edukiontziak prest jartzea, prezioa guztira:..... €, gehi.....€, BEZaren .....%(r)i dagokiona.
- **2. Iotea:** lurpeko edukiontziak barrutik eta kanpotik garbitzea, eta mantentze lan prebentiborako aldizkako lanak, xehetasun honen arabera:
  - Edukiontzien garbiketa: ..... € garbitutako unitateko, gehi.....€, BEZaren .....%(r)i dagokiona.
  - Mantentze lan prebentiboa: ..... € aztertutako unitateko, gehi.....€, BEZaren .....%(r)i dagokiona.

(Data eta sinadura)



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

## II. ERANSKINA

..... jaunak/andreak, helbidea  
..... eta NAN zk. ...., erabateko  
gaitasun juridikoa eta jardutekoa duelarik, bere izenean (edo  
..... ordezkatuz, helbidea ..... eta IFK  
.....), Debagoieneko Mankomunitateak EDUKIONTZIEN MANTENTZE LAN  
PREBENTIBOA ETA GARBITZEKO ZERBITZUA kontratatzeke prozeduraren jakitun.

### ADIERAZTEN DUT

Enpresa lizitatzailleak Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak betetzen dituela eta, esleitzeko proposamena bere alde ateraz gero, konpromisoa hartzen du kontratazio organoaren aurrean egiaztatzeke, kontratua esleitu baino lehen, Plegu honetako 1. gutun azaleko 11. baldintzan exijitzen diren agiriak dituela eta baliodunak direla, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 146.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

..... (e)n, 20..(e)ko .....aren ...a.

Sinadura

**DILIGENTZIA.- Mankomunitateko Gobernu Batzordeak 2014ko maiatzaren 15ean egindako saioan Plegu hau onartu zuela jasoarazteke.**

**Arrasaten, 2014ko maiatzaren 16an.  
IDAZKARIA**

**Izpta.: Belen Txintxurreta**